BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
19/02/21

# Bizkaiko Batzar Nagusiek, Lurralde Historikoan erroldatuta dagozan 18.000 zaintzaileen aldeko neurriak batzen dituan Arauz Besteko Proposamena onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordeak, Talde Popularrak aurkeztu dauen eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eskea jaso dauen Arauz Besteko Proposamena onetsi dau gaur goizean, Zaintzaileen Estatutuaren garapenari buruzkoa. Lurralde Historiko honetan 18.000 zaintzaile baino gehiago dagoz erroldatuta. Talde Mistoko batzordekidea egon ez denez, proposamenak aldeko 10 boto eta lau abstentzino izan ditu, EH Bildurenak eta Podemos Bizkaiarenak, hain zuzen be.

Eduardo Andrés Bizkaiko Talde Popularreko bozeroalea izan da ekimena defendidu dauena, eta adierazo dauenez "Gaur egun, oraindino, Zaintzaileen Estatutua ez da errealidadea, hori garatzen dauen dekretua ez dalako nahikoa eta urte biko atzerapenaz ailegetan dalako". Holan, Arauz Besteko Proposamenak 10 neurri zehatz aurreikusten ditu, eta horreen artean dagoz –beste batzuen artean– zerbitzuagaz lotutako aldi baterako prestazinoaren eta Familia inguruko zainketen arteko bateragarritasuna, zaintzaileen oporrak, BGAE batera ekarpenak egitea, 65 urtera heltzean pentsinoa osatzeko, laguntza fiskalak eta beharra erraztuko dauen materiala eskuratzeko finantzaketea, eta baita arreta psikologikoko programak be.

Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeak ordeztu dituen Juan Oterminek eta Jon Sánchezek, ekimenaren alde agertu eta zuzenketa-eske biak defendidu ditue. Zuzenketa-eskeek zehaztu egiten dabe Arauz Besteko Proposamena, proponidutako neurriak behin betiko ezarri aurretik esperientzia pilotuak egiteko eta indarrean dagozan gizarte arloko programatan izan daikiezan eraginak kontuan izateko. Oterminek esan dauenez, beharrezkoa da proposamenen "bideragarritasun juridikoa, teknikoa eta ekonomikoa" kontuan hartzea, eta Sanchez pozik agertu da Bizkaiko Talde Popularraren ekimenaren zehaztasuna ikusita, eta zuzenketa-eske biak defendidu ditu "sentsibilitate handiko gai batean testuari koherentzia handiagoa emoteko".

Podemos Bizkaia taldearen aldetik, Josean Elgezabal oso kritiko agertu da, "Proposamen horrek zuriaren ganean baltz jarten dituelako guk daborduko martxan egozala uste genduzan hainbat neurri, eta oso leku txarrean izten dabelako Bizkaiko Foru Aldundia". Bozketan abstenidu dan Batzarretako beste taldearen bozeroaleak, Arantza Urkaregik (EH Bildu), esan dauenez, "zuzenketa-eskeak aurkezteko aukerea balorau dogu, PP taldeak proponidutako neurri batzuekaz ados gagozalako", eta proposamena aurkeztu dauenari puntu jakin batzuk argitzeko eskatu deutso, baina, azkenean, abstentzinoagaz jarraitzea erabagi dau.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Gizarte Ekintzako Foru Diputatuaren agerraldia**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordearen saio berean, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Diputatua egon da, eta oposizinoak egindako hiru agerraldi eskariri erantzun deutse. Lehenengoaren gaia, onetsi dan Arauz Besteko Proposamenari jagokon Zaintzaileen kolektibo bera izan da.

Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, persona horreen estatutua arautzen dauen Foru Dekretua eta familia inguruneko zainketetarako prestazino ekonomikoa arautzen dituan Foru Dekretuaren eukia azaltzeko eta emon behar diran pausuen barri emoteko eskatu deutso Gizarte Ekintzako Diputatuari.

Isabel Sánchez Roblesek azaldu dauenez, Zaintzailearen Estatutuaren xedea “estatusa aintzatestea eta prestazino ekonomikoa, eta profesionalak ez diranean emoten jaken laguntzea arautzea da”, eta baita “atsedenaldirako daukien eskubidea” bermatzea be. “Aukerea menpekotasuna daukan persona bat etxean zaintzea danean –azpimarratu dau–, arreta hori kalidadekoa izatea eta, aldi berean, zaintzailearen bizitza proiektua eta kalidadea errespetetea gura dogu”.

Talde Popularraren aldetik, Eduardo Andrések, senideak zaintzeagaitik emoten diran prestazinoen eta eguneko zentroetan eskeintzen dan arretaren arteko bateragarritasuna azpimarratu dau barritasun moduan. Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia) genero ikuspegia kontuan hartu ete dan galdetu dau, eta baita laguntzak jasoteko eskatuko diran dedikazino denporea edo ahaidetasun baldintzak be. Juan Oterminek (Euskal Sozialistak) nabarmendu dauenez, Zaintzailearen Estatutuak “ez dauka aurrekaririk” Estadu osoan eta, hori dala eta, “oso aurrerapausu garrantzitsua” dala esan dau. Eta Jon Sánchezek (Euzko Abertzaleak) Bizkaiko Foru Aldundiak hori sustatzeko orduan erakutsi dituan “lidergoa, ausardia, koherentzia eta barrikuntzea” jarri ditu balioan.

Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek Orozkon dagon Ama Mesedetakoen Jesús María de lbarra Heziketa Bereziko Zentroko kudeaketaren aldaketaren barri emon daian egindako erantzun-eskeei erantzutera be etorri da Sánchez Robles, aldaketa horrek erabiltzaileengan izan dauen eragina azaltzeko. Gizarte Ekintzako Diputatuak adierazo dauenez, ez da ezelango titulartasun aldaketarik egon eta ez da aldatu foru erakundeagaz sinatutako hitzarmena (dagozan 80 plazatatik 62tan dauka eragina). Bere eretxiz, holango zentroen kudeaketak daukan gero eta konplexutasun handiagoa eta erlijiozko bokazinoen falta dirala eta, Ama Mesedetakoen kongregazinoak laguntza profesionala kontratau behar izan dau, “baina guk ez daukagu horren inguruko eskumenik” esan dau. Adierazo dauenez, kudeaketa barri horrek ez ditu murriztu bertan dagozanei eskeintzen jaken zerbitzuaren arreta eta kalidadea.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
21/02/19

# Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban una Proposición No de Norma de medidas concretas en favor de las 18.000 personas cuidadoras censadas en el Territorio Histórico

La Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana una Proposición No de Norma –presentada por el Grupo Popular y enmendada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos- relativa al desarrollo del Estatuto de Personas Cuidadoras, cuyo censo supera la cifra de 18.000 en este Territorio Histórico. En ausencia del apoderado del Grupo Mixto, la propuesta ha logrado 10 votos a favor y cuatro abstenciones., correspondientes a EH Bildu y Podemos Bizkaia.

Eduardo Andrés, portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, ha sido el encargado de defender una iniciativa que ha justificado señalando que "el Estatuto de Personas Cuidadoras sigue sin ser una realidad a día de hoy, ya que el decreto que lo desarrolla es insuficiente y llega con dos años de retraso". En este sentido, la Proposición No de Norma contempla hasta 10 medidas concretas, que incluyen –entre otros- aspectos como la compatibilidad de la Prestación Temporal Vinculada al servicio con la de Cuidados en el Entorno Familiar, las vacaciones de las personas cuidadoras, la aportación a una EPSV para complementar su pensión al llegar a los 65 años, ayudas fiscales y financiación para la adquisición de material que facilite su trabajo, o los programas de atención psicológica.

Juan Otermin y Jon Sánchez, en representación de los grupos junteros Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos respectivamente, han apoyado la iniciativa y defendido sus dos enmiendas, que matizan la Proposición No de Norma en el sentido de la necesidad de realizar experiencias piloto antes de la definitiva implementación de las medidas propuestas, y de tener en cuenta su posible afección a programas sociales vigentes. Otermin ha defendido la necesidad de considerar "la viabilidad jurídica, técnica y económica" de las propuesta, mientras que Sánchez se ha felicitado por la concreción de la iniciativa del Grupo Popular Vizcaíno y ha defendido las dos enmiendas "para dotar de más coherencia al texto en un asunto de alta sensibilidad".

Por parte de Podemos Bizkaia, Josean Elgezabal se ha mostrado muy crítico porque "esta Proposición pone negro sobre blanco una serie de medidas que creíamos que ya estaban en marcha, y deja en muy mal lugar a la Diputación Foral de Bizkaia". La portavoz del otro grupo juntero que se abstenido en la votación, Arantza Urkaregi (EH Bildu), ha señalado que "hemos valorado la posibilidad de presentar enmiendas, ya que estamos de acuerdo con una parte de las medidas propuestas por el PP", y ha pedido algunas aclaraciones de detalle al proponente, pero finalmente ha mantenido su postura abstencionista.

**Comparecencia de la Diputada Foral de Acción Social**

En la misma sesión de la Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia ha estado presente la responsable foral del área, Isabel Sánchez Robles, que ha respondido a tres solicitudes de comparecencia por parte de la oposición. La primera de ellas ha tenido por objeto el mismo colectivo de las Personas Cuidadoras al que afecta la Proposición No de Norma aprobada.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Arantza Urkaregi, portavoz de EH Bildu, ha solicitado a la Diputada Foral de Acción Social que explique el Decreto Foral por el que se regula el estatuto de estas personas y la prestación económica para cuidados en el entorno familiar, así como los pasos que tiene previsto dar a este respecto el ente foral en el futuro.

Isabel Sánchez Robles ha explicado que el Estatuto de las Personas Cuidadoras tiene por objeto "reconocer el estatus y regular la prestación económica y el apoyo que se les brinda cuando no se trata de profesionales", así como garantizar "su derecho al descanso". "Cuando la opción es el cuidado en el hogar de una persona dependiente –ha subrayado-, queremos que esa atención sea de calidad, y que a la vez se respete el proyecto y la calidad de vida de la persona cuidadora".

Por parte del Grupo Popular, Eduardo Andrés ha destacado como novedad la compatibilidad entre las prestaciones por cuidados a familiares y la atención en centros diurnos. Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha preguntado por la consideración de la perspectiva de género, así como el tiempo de dedicación o los requisitos de parentesco para tener acceso a las ayudas. Juan Otermin (Socialistas Vascos) ha destacado que el Estatuto de las Personas Cuidadoras "no tiene precedentes" en todo el Estado, por lo que lo ha calificado como "un avance muy importante". Y Jon Sánchez (Nacionalistas Vascos) ha puesto en valor "el liderazgo, la valentía, la coherencia y la innovación" de la Diputación Foral de Bizkaia a la hora de promoverlo.

Sánchez Robles ha comparecido asimismo para responder a preguntas de Podemos Bizkaia y EH Bildu en torno a la residencia para discapacidad Centro de Educación Especial Jesús María de Ibarra en Orozko, a los cambios registrados en su gestión y a cómo han afectado a las personas usuarias. La Diputada Foral de Acción Social ha asegurado que no se ha producido un cambio de titularidad ni se ha modificado el convenio con el ente foral (que afecta a 62 de las 80 plazas disponibles). A su juicio, la creciente complejidad en la gestión de este tipo de centros y la ausencia de vocaciones religiosas han empujado a la congregación de las Madres Mercedarias a contratar un apoyo profesionalizado "sobre el que no tenemos competencia", pero ha resaltado que esa nueva gestión no ha mermado la atención ni la calidad del servicio a residentes.